



ERABILTZAILA KONTRATUA

Honako ERABILTZAILA KONTRATU hau zuk, sinadura elektronikoa aurreraturako itsasontzi-jokoaren soluzioaren azken erabiltzaile gisa, eta *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de Certificación y Servicios, Izenpe, SAK* (aurrerantzean, IZENPE) egindako kontratua da.

LEHENA.- KONTRATUAREN XEDEA

ERABILTZAILA KONTRATU honek IZENPEk egindako eta Kautotzeko eta Sinatzeko Praktiken Deklarazioan araututako sinadura elektronikoa aurreraturako itsasontzi-jokoaren edukia eta hori erabiltzearen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak biltzen ditu.

BIGARRENA .- SINADURA ELEKTRONIKO AURRERATURAKO ITSASONTZI JOKOA

Soluzio horrek identifikazio elektronikoa eta erabiltzailearen sinadura ahalbidetzen du. Itsasontzi-jokoa, pasahitza eta erreferentzia-zenbakia izango du. Erabiltzaileak emandako identifikazio-datuetan oinarrituta sortuko dira horiek, eta IZENPEk egiaztatuko ditu. *Sinadura elektronikoa aurreratu* gisa kalifikatzeko beharrezko eskakizunak betetzen ditu, betiere *sinadura elektronikoa*ri buruzko *abenduaren 19ko 59/2003 Legean* ezarritakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- KAUTOTZEKO ETA SINATZEKO PRAKTIKEN DEKLARAZIOA ETA LOTZEN ZAION DOKUMENTAZIOA

Kautotzeko eta Sinatzeko Praktiken Deklarazioak eta izango dituen eguneratzeak eraenduko dute teknikoki zein operatiboki sinadura elektronikoa aurreraturako itsasontzi-jokoaren soluzioa, baita erabiltzaileari emango zaion dokumentazio osagarriak ere –www.izenpe.com helbidean eta info@izenpe.com postan eskura dagoena–.

Erabiltzaileak Kautotzeko eta Sinatzeko Praktiken Deklarazioa ezagutzen duela deklaratu du, eta, bertan, IZENPEk emandako gainerako dokumentazioan deskribatzen diren eskakizun tekniko eta operatiboak betetzeko konpromisoa hartuko du.

LAUGARRENA.- ERABILTZAILAAREN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Sinadura elektronikoa aurreraturako itsasontzi-jokoari dagokionez, erabiltzaileak honako hau egin beharko du:

- Kautotzeko eta Sinatzeko Praktiken Deklarazioan zehazten den moduan erabili beharko du.
- IZENPEri emandako informazioaren egiazkotasuna eta gaurkotasuna bermatu beharko du, betiere Kautotzeko eta Sinatzeko Praktiken Deklarazioaren eskakizunen arabera.
- Elementuak arreta handiz zaindu beharko ditu.
- Erabilera-baldintzak jakin eta onartu beharko ditu, baita haiei egiten zaizkien aldaketak ere.
- Soluzio horren euskarrien erabilera egokia eta kontserbazioa bermatu beharko du.
- IZENPEri atzerapenik gabe jakinarazi beharko dio fidagarritasunaren arloko edozein zalantza.
- Baliozko aldia amaitu ondoren, ez du erabili beharko.
- Soluzio hori aktibatu aurretik, erabilera-baldintzak eta Erabiltzaile Kontratu hau onartu beharko ditu.



ERABILTZAILE KONTRATUA

Sinadura elektronikoa aurreraturako itsasontzi-jokoari dagokionez, erabiltzaileak:

- Behar bezala erabiltzeaz erantzungo du, betiere Kautotzeko eta Sinatzeko Praktiken Deklarazioan zehaztutakoaren arabera.
- Kalterik gabe mantendu beharko du, eta, hala badagokio, kalte-ordainak eman beharko dizkie IZENPERi, erregistro-entitateei eta konfiantzako hirugarren batzuei, baldin eta kalteak, galerak, zorrak, gastu prozesalak edo bestelako gastuak eragiten baditu Kautotzeko eta Sinatzeko Praktiken Deklarazioan zehaztutakoa ez betetzearen ondorioz eta onartu gabeko erabileren edo erabilera arduragabeen ondorioz.

BOSGARRENA.- IZENPEREN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK

IZENPEk sinadura elektronikoa aurreraturako itsasontzi-jokoaren soluzioa lagatzen du, betiere Kautotzeko eta Sinatzeko Praktiken Deklarazioan eta *sinadura elektronikoa buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean* aurreikusitakoaren arabera. Zehazki, honako hau egin beharko du:

- Erabiltzailea identifikatu beharko du, Kautotzeko eta Sinatzeko Praktiken Deklarazioan zehaztutakoaren arabera.
- Soluzioa aktibatu aurretik, soluzioaren terminoen eta baldintzen berri eman beharko du.
- Balidatzeko zerbitzua egin beharko du.
- Dokumentazio eta informazio guztia edozein bitarteko seguru bidez 7 urtez erregistratuta gorde beharko du.
- Erabiltzaileari beharrezko elementu guztiak ematen zaizkiola bermatu beharko du.
- Zerbitzua behar bezala egiteko beharrezko eskakizun teknikoak eta pertsonal-mailakoak bete beharko ditu.

IZENPEk erantzun beharko du honako kontratu honetan ezarritako terminoak betetzen ez badira eta Kautotzeko eta Sinatzeko Praktiken Deklarazioan deskribatutako zerbitzuak arduragabekeriak egiten badira edo behar besteko arduraz egiten ez badira.

SEIGARRENA.- DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Aplikatzekoa izango den datu pertsonalen babes-erregimena, berriz, *Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legean* eta hori garatzen duten arauetan aurreikusitakoa izango da.

Zehazki, IZENPEk izango du datuak biltzen dituzten fitxategien ardura, Kautotzeko eta Sinatzeko Praktiken Deklarazioan zehaztutakoaren arabera.

Fitxategi horiek Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Erregistro Nagusian deklaratu daude.

IZENPEk datu pertsonalei aplika dakizkiekeen segurtasun-neurriak bermatuko ditu, izaera teknikokoak zein antolamendukoak, betiere IZENPERen segurtasun-politikako dokumentuan ezartzen denari jarraituta.

ZAZPIGARRENA.- ERABILERA BALDINTZAK ETA INTIMITATE POLITIKA

IZENPEk www.izenpe.com helbidean eskuragarri ditu sinadura elektronikoa aurreraturako itsasontzi-jokoaren erabilera-baldintzak eta intimitate-politika.



ERABILTZAILE KONTRATUA

ZORTZIGARRENA.- APLIKAGARRI DEN LEGEA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu hau Espainiako legeak eta, bereziki, *sinadura elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legeak* xedatutakoaren arabera izango da. Jurisdikzio eskuduna une bakoitzean legeria prozesal espainiarrak agintzen duena izango da.